

Cancha, banku bulego berezia

Nafarroako Aurrezki Kutxak, CANek, aurten banku bulegorako eredu berria abiatu du, Cancha izenekoa. Espazio soziokulturala Aurrezki Kutxaren ohiko egitekoekin lotzen du. 2008a bukatzerako eredu hori 437 bulegotara hedatu nahi du.

DANIEL UDALAITZ

Argazkia: Josu Santesteban



CANek Iruñean duen banku bulegoetako bat da, ez badirudi ere.

NAFARROAKO AURREZKI KUTXAREN, CANen, bulego bat aurten ikusten duena harritu egingo da. Ez dauka zeri-kusirik gainerako bankuek oraindik ere eusten dioten finantza bulegoaren ereduarekin. CANen bulego berriotan nahasturik aurkituko ditugu ume batzuk jolasean, gazte bat Interneten, jubilaturen bat egunkariak irakurtzen edo kafea doan hartzen, musikari bat abesten... Dena doan, hainbat bezerok bankuko gorabeherak egiten dituzten bitartean. "Iraultza" da, publizitatean bertan eurek dioten moduan. Finantza negozioa egiteko era berria da eta, banketxe nafarrak ematen dituen datuen arabera, emaitza ekonomikoak ederki

hobetu ditu. Bulego horiek Cancha izena dute.

Canchak gainerako erakundeetako bulegoen aldean beste era batera daude diseinatuta. Barruan altzariek ludotekaren antza daukate banku bulegoarena baino. Leku zabalagoak, atseginagoak eta informalagoak dira eta merkataritza jarduerak jendearentzako ordutegian programatzen diren ekintza ludiko-kulturalekin nahasten dira. Canchatan sartzeko ez da bezero izan behar, ezta finantza-konturik egin behar ere. Ez dago leku finkorik, ezta Kutxako zatian ere, eta bulegoko langileak hara sartu direnak aisialdi edo kultura-ekintzetarako partean ere hartuko

ditu. Bulego berriaren zati nagusian mahai txikiak daude, umeentzako liburu eta margoekin, haurrek jolasteko, Interneterako sarbide batzuk eta eguneko prentsa, baita doako kafea ere.

2010erako bulego guztiak ancha izango dira

CANek %50 azkartu eta handitu du hedapenerako plana. 2008 amaierarako 437 Canchatara heltzeko asmoa dute. Horietatik %60 Nafarroatik kanpora egongo dira. 2008 amaierarako, CAN orain arte egon ez den lekuetan ezarriko da. Zehatzago, 14 Cancha irekiko ditu Levanten, bost Asturiasen, hiru Andaluzian eta hiru Galizian. Eremu geografiko berrietan irekitzeaz gainera, CAN hazi egingo da dagoeneko bada goen lekuetan. EAEn adibidez, 78ra helduko dira; Madrilén zazpi Cancha berri egongo dira, 63 guztira; Katalunian 14 berri izango dira, guztira 43 izateko; Aragoi beste bostekin 20 izango dira, eta Errioxan bat gehiago, 17 guztira. Horrez gain, Nafarroako Kutxak hiru bulego dauzka Guadalajaran, bi Burgosen eta bat Valladoliden.

Canchak 2006ko irailean hasi ziren irekitzen, beraz, urtebete baino gehiagoko bizia eta esperientzia daukate dagoeneko. Arduradunak pozik daude bulegoen kudeaketa eredu berriarekin, eta "gizarte bankuaren" estilo berria dela diote, eurak aitzindari direla. Emaitza ekonomikoen ikuspegitik,

EAEn ere egin nahi du negozioa

CANek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako hedapen plan sakona prestatu du, orain arte Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxek izan duten filosofia eta jokabidetik aldentuz, kutxa bakoitza bere herrialdean egotea, alegia. Filosofia hori CANek defendatu du gehien orain arte. Horrela, 2008ko urte amaierarako CANek aurreikusita dauka beste 78 bulego lanean izatea Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Dagoneko bulegoetarako lekuak erosita dauzka herrialde guztietan. Kutxak hiru bulego ditu Iruñean, eta BBK eta Vital Kutxak aurrean bana irekitzea aurreikusita daukate.

Oraitxe bertan Cancha batzuk irekita dauzka EAeko hiru hiriburuetan eta lurralde bakoitzeko herri handietan. Orotara 47 Cancha bulego dauzka Hego Euskal Herri osoan. Bederatzi Nafarroan bertan, beste hainbeste Araban, 16 Bizkaian eta 13 Gipuzkoan. Atzerrian, aldiz, zazpi Cancha bulego ditu Madrilan, hiru Bartzelonan, bi Errioxan eta bat Aragoian. Urte amaiera baino lehen 80 Cancha bulego izatera helduko dira gainera.

Hego Euskal Herriko lau Aurrezki Kutxen artean 1.300 bulegotik gorako sarea daukate Espainiar Esta-

tuan. 2006an lau Kutxek 647,5 milioi euroko irabazi garbiak izan zituzten. BBK-k 251 milioi euro irabazi zituen, Kutxak 194,2 eta Vitalek 61,5. 140,8 milioi euroekin, CAN izan da irabazietan hazkunderik handiena izan duena, %31,2 eta beste hiru Kutxak hurrenez hurren %26, %10,3 eta %10,2 hazi ziren. Hedapen aldiaren amaieran, 2008an, CANek 232 bulego izango ditu guztira Nafarroatik kanpora eta ia 200 Foru Erkidegoan. Gaur egun CANek 1.692 langile baino gehiago ditu eta horietatik %31k Nafarroatik kanpo dihardute.

CANek esperientzia eta negozio ona izan dela uste du. Lehenengo sei hilabeteetan, negozioa %52 igo duela dio CANek, bulegoen eredu berria hedatzean. Negozioa, gaineratzen dutenez, oso orekatua izan da administratutako baliabideen eta kredituen artean, azken horiek bolumen osoaren %55 dira eta.

HBW Express erosteko aukera ere sinatu du. Horrez gain, Wachovia Bankek CANeko bazkide diren enpresen eskura jartzen ditu Estatu Batuetan dituen 3.100 bulegoak. Halaber, CECaK Paris, Brusela, Frankfurt eta Ginebran dituen bulegoetan lan egiten du banku nafarrak.

Enpresei nazioartean zabaltzen laguntzen dien sarearen bidez ere eskaintzen ditu zerbitzuak. Sare hori 2.300 korrespontsaliak osatzen dute eta 110 herrialdetara iristen da. Gainera, Asiako inportazioetarako dokumentu-kredituak egiten dituen elkarteak du eratuak Hong Kongen. ■

Vialogos sarearen ostean, Cantera plana

CAN beti izan da aitzindaria negozioa egiteko modu berrietan. Espainiar Estatuko Aurrezki Kutxen Vialogos sarea sortzeko bultzatzailea izan zen. Aurten, 2007an, 2007-2010 urteetarako Cantera izeneko plan estrategikoarekin hasi du urtea. Plan horrek 600 milioi euroko inbertsioa dakar, eta bulego guztiak bezeroaren kudeaketaren ardatz bihurtu ditu: "Zeuk aukeratzen duzu, zeuk erabakiko duzu" programa. Ekimen berria da, hau ere aitzindaria. Horren bidez 450.000 bezeroz Gizarte Ekintzarako gastua zertara bideratu aukeratu ahal izan dute, eta 290.000 bezeroz 1.300 proposamenen artean programa jakin bat aukeratu ahal izan dute.

Nazioarteko hedapena

Bost bulegoko sarea du Londres, New Jersey, Errumania, Txekiar Errepublikan eta Polonian, inbertsioen sustapen eta aholkularitzarako VialEste eta VialAmerica elkarteek bideratua. Hungariako

kafe antzokia

BILBO * Done Bikendi 2 * 48001 * tel 94 424 46 25 * ONDARROA * Iparragirre 10 * 48700 * Tel 94 683 41 41

Bilbo

- 20 ASTEARTEA / 11:00etabik aurrera
HERRIEN ETA HIZKUNTZEN ARTEKO TOPAKETAK * Hitzaldia
- 20 ASTEARTEA / 20:30
KUKUXUMUSU MUUUS LEHIAKETA
- 22 OSTEGUNA / 22:00
LATZEN * GOVERNORS
- 23 OSTIRALA / 22:00
LATZEN * GOVERNORS
- 24 LARUNBATA / 22:00
MUCHACHITO BOMBO INFIERNO
- 25 IGANDEA / 17:00
MARSEL MAQOA
- 26 ASTELEHENA / 21:00
THE AGGROLITES
- 27 ASTEARTEA / 20:30
KUKUXUMUSU MUUUS LEHIAKETA
- 28 ASTEAZKENA / 11:00
LURRA ETA URA Iñaki Antigüedad Hitzaldia - Gabriel Arestiaren kultura hizorduak
- 29 OSTEGUNA / 22:00
GU TA GUTARRAK Gabriel Aresti euskaltegia 25 urte ospatuz
- 30 OSTIRALA / 22:00
SKIZOO * MOEBIO

Ondarroa

- 23 OSTIRALA / 22:30
ANDER LIPUS & KARABANA Hala mintzatu zen Zappatrusta!
- 24 LARUNBATA / 22:30
SEXTY SEXERS * NUUK AT
- 25 IGANDEA / 20:00
EMAKUMEEKIKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARETKO EGUNA
- 30 OSTIRALA / 22:30
AXULAR 3.0 * BRANKAN * THE WET BAND Mutriku gaua

2007*
azaroa
www.kafeantzokia.com